



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Decreto de Alcaldía

### Alkate-Dekretua

3863/2016

PLA10I0BE

Código de validación/*Balidazio kodea*  
126T6E2D61443R5D0CGA



2016ko azaroaren 22an LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL enpresak "Zerukoa" A-09 hiri-lurzoru eremuaren xehetasun-azterketa aurkeztu zuen, Udal honetan onespenez izapideak egiteko.

Berori aztertu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek idatzitako txostenetan oinarriturik, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honakoaren bitartez ondorengo **ERABAKI DUT**

**LEHENENGO.** LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL enpresak aurkeztu duen "Zerukoa" A-09 hiri-lurzoru eremuaren xehetasun-azterketa hasierako izaeraz onestea.

**BIGARREN.** Espedientea hogei egunez jendaurrera jartzea, horretarako Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, probintziako egunkarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia argitaratuz eta, halaber, jabe eta gainerako interesdunei jakinarazpen pertsonal bana bidaliz.

En fecha 22 de noviembre de 2016 se presenta por parte de la mercantil LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL, el estudio de detalle del ámbito de suelo urbano A-09 "Zerukoa", para trámite de aprobación por parte de este Ayuntamiento.

Examinado el mismo, en base a los informes emitidos por los Servicios Técnicos Municipales y en aplicación de lo establecido en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, por la presente **RESUELVO** lo siguiente:

**PRIMERO.** Aprobar con carácter inicial el Estudio de Detalle del ámbito de suelo urbano A-09 "Zerukoa" presentado por la mercantil LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL.

**SEGUNDO.** Someter a información pública el expediente, mediante la publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia, periódico de la provincia y tablón de anuncios del Ayuntamiento, y con notificación personal a los/as propietarios/as y demás personas interesadas directamente, por plazo de veinte días.